

Loturiko arriskuak	Beharrezkoak diren norbera babesteko ekipamenduak
<p>Pertsonak maila berean erortzea Suteak Kontaktu termikoak-erredurak Leherketak Ebakiak, kolpeak edo ziztadak, objektu edo tresnekin Partikulak jaurtzea Zipriztinak Substantzia arriskutsuak arnastea Kontaktua substantzia arriskutsuekin Agente biologikoak Kontaktu elektrikoak Zutik mantendutako gorputz-jarrerak Erabilitako produktu kimikoen segurtasunerako datuen fitxetan agertzen diren arriskuak Bestelakoak: langilearen edo ikasleen balizko arduragabekeriaren ondoriozko arriskuak</p>	<p>Segurtasun-betaurrekoak jaurtiketetatik eta zipriztinetatik babesteko Kotoizko mantala Erabilitako produktu kimikoen segurtasunerako datuen fitxetan agertzen direnak</p>

PRAKTIKA SEGURUAK

Segurtasun neurri orokorrak

Irakaskuntzako laborategiek ez dute inoiz funtzionatuko irakasle edo praktika arduradunik gabe. Une batez alde egin behar badu, aurkitzeko moduan egon beharko du.

1. Segurtasuneko elementuak eta ebakuazio-bideak

Beharrezkoa da eskura dituzun segurtasuneko elementuekin trebatzea: jakin behar da non dauden suitzalgailuak, segurtasuneko duxak eta begiak garbitzeko produktuak, baita irteera guztiak ere, larrialdietakoak izan edo ez.

2. Jantzi egokiak

Beharrezkoa da kotoizko mantala janztea, produktu kimikoen balizko zipriztinak saihesteko. Arrazoi beragatik, komenigarria da minigona edo galtza motzak ez eramatea. Era berean, zapata itxiak eramatea gomendatzen da, eta ez sandaliak. Ile luzea izatea arriskutsua da; bilduz gero arrisku hori saihesten da. Laborategiko praktikak egin bitartean, ezin dira eraman ez eraztunak eta ez eskumuturrekoak.

3. Begiak babestea

Laborategian praktika bat egiten den bakoitzean segurtasun-betaurrekoak erabili behar dira. Lentillak erabiltzen badituzu, gomendagarria da segurtasun-betaurrekoak itxiak izatea.

Ez ukitu begiak eskuak ondo garbitu arte.

Produktu kimiko batek begiak zipriztintzen badizkizu, erabili berehala begiak garbitzeko produktua eta guttiz garbitu. Berehala jokatu eta beharrezkoa bada laguntza medikoa eskatu.

4. Arau higienikoak

Laborategian ezin da ez jan ez edan. Elikagaiak eta edariak produktu kimikoekin kutsatzeko aukera dago.

Garbitu beti eskuak esperimendu bat egin ondoren eta laborategitik atera baino lehen.

Informazioa izan ezean, ez ezazu produkturik arnastu, dastatu edo usaindu.

Azido edo base kontzentratuak edo produktu toxikoak neurtzeko, pipeta ez erabili ahoarekin. Probetak erabili, edo bolumenak zehaztasunez neurtu behar izanez gero, propipetak.

5. Laneko tokiko baldintzak

Beti garbi mantendu behar da, libururik, berokirik, poltsarik, eta abarrik gabe. Isuritako produktuak berehala garbitu behar dira eta behar ez diren produktu kimikoen ontziak laneko tokitik kenduko dira.

Termometrorik puskatzen bada, berehala jaso eta merkurioa kendu behar da.

6. Laborategian izan beharreko jokaera

Ez utzi laneko tokia erreakzio edo destilazioren bat burutzen ari den bitartean.

Norberaren jokaera egokia izan behar da eta zentzudun jokatu behar da. Debekatuta dago txantxak egitea, korrika ibiltzea, jolastea, bultzatzea, garrasi egitea...

7. Baimenik gabeko esperimenduak

Ezin izanen dira inoiz egin irakasleek baimendu gabeko esperimenduak.

8. Ekipoak eta tresnak erabiltzea

Ez erabili inoiz ekipo edo tresna bat, ez baduzu horren funtzionamendua guztiz ezagutzen.

Ekipoak eta tresnak baldintza egokietan erabilgarri egon behar dira, eta haiekin lan egiten bukatzean garbiak eta egoera onean utzi behar dira, berriz ere erabili ahal izateko.

9. Produktu kimikoak maneiatzea

Produktu kimikoak arriskutsuak izan daitezke, dituzten propietate toxiko, korrosibo, sukoi edo leherkorrak direla eta. Hortaz, kontu handiz maneiatu behar dira.

Sugar irekiak saihestu behar dira, ahal den neurrian. Bunsen metxeroa erabiltzea ezinbestekoa denean, ziurtatu zure inguruan ez dagoela produktu sukoiarik, disolbatzaileak bereziki.

Ez arnastu erabilitako produktuen lurrinak eta erauzketa-bitrinetan lan egin ezazu, batez ere produktu toxiko, sumingarri edo korrosiboekin lan egiten duzunean.

Saihestu produktu kimikoek azala ukitzea. Erabili eta botatzeko eskularruak jantzi produktu toxiko edo korrosiboak maneiatzeko.

Produktu guztiak, hondakinak barne, behar bezala etiketatuak egon behar dira. Ez erabili etiketatu gabeko produkturik.

Produktuak berotzeko, ontzien irekidura zure edo ondoan daukazun pertsonen kontrako noranzkoan ipini. Ez berotu inoiz erabat itxita dagoen ontzi bat.

Laborategian eskura egon behar dute erabilitako produktu kimiko arriskutsuen segurtasunerako datuen fitxak.

Fitxa horiek edozein produktu erabili baino lehen kontsultatu behar dira, eta une oro eskura egon behar dute badaezpada ere istripua izanen balitz.

10. Hondakinak biltzea

Puskatutako beira zatiak dagozkien ontzietan utzi.

Paperak paperontzietara bota behar dira.

Hustubidera gatz-disoluzio neutroak bakarrik bota daitezke.

Produktu toxiko eta arriskutsuak ezabatzeko arauak jarraitu. Etiketatu eta helburu horretara zuzendutako edukiontzi berezietan utzi.

Lehen sorospenak istripurik gertatuz gero

Istripu edo gorabeheraren bat gertatuz gero, txosten bat egin behar da, dagokion inprimakian, gertatutakoa zehaztuz. Jasan duena ikastetxeko langilea bada, inprimakia ondoko webgunetik deskargatu dezake:

<http://www.educacion.navarra.es/portal/Recursos+Humanos/Riesgos+laborales/Accidentes+de+trabajo>

http://www.educacion.navarra.es/portal/digitalAssets/48/48777_Formulario_autocumplim_AATT.pdf .

1. Sutea laborategian

Sutea txikia eta mugatua bada, inguruan dauden produktuak eta material sukoia baztertu. Itzali su-itxalgailu egokia erabiliz edo itota. Ez erabili inoiz ura sutea itzaltzeko, disolbatzaile batek su hartzeagatik sortutakoa bada.

Ezin baduzu sutea kontrolatu, Larrialdi Planeko arduradunari deitu, suteen aurkako alarma sakatu eta laborategia lasai ebakuatu.

Arropa sutzen bazaizu, laguntza eskatu, lurrera bota eta zure gainean bira egin sugarrak itzaltzeko. Ez ezazu korrika egin eta ez saiatu segurtasuneko dutxa batera iristen, oso gertu izan ezean. Ez erabili inoiz su-itxalgailua pertsona baten gainean.

2. Erredurak

Kaltetutako gunea ur hotzarekin garbitu 10-15 minutu bitartean.

Gunea zabala bada, segurtasuneko dutxak erabili eta berehalako laguntza medikoa eskatu. Ez erabili pomada edo krema koipetsuak erredura larrietan.

3. Ebakiak

Beharrezkoa da urarekin ondo garbitzea eta ondoren apositu egokia ezartzea. Ebakia handia bada eta odola etengabe badario, berehalako laguntza medikoa eskatu.

4. Produktu kimikoak azalaren gainean isurtzea

Azalaren gainean isurtzen den produktu kimiko oro berehala garbitu behar da txorrotako urarekin 10-15 minutu bitartean. Horrekin nahikoa izanen ez balitz, segurtasuneko dutxa erabili. Arropa kutsatu bada, berehala kendu. Ez erabili antidoto kimikorik.

5. Korrosioa begietan

Bi begiak ongi garbitu txorrotako urarekin 15 minutu bitartean gutxienez.

Garbiketa errazteko, begia irekita eta betazalak bereizita mantendu behar dira.

Nahiz eta lesioa txikia iruditu, berehalako laguntza medikoa eskatu.

6. Produkturen bat irentsiz gero

Irentsitako produktua korrosiboa bada, ez oka eginarazi.

Korrosibo emalea ur ugari edanda diluitu.

Berehalako laguntza medikoa eskatu.

7. Produkturen bat arnastuz gero

Kaltetutako pertsona berehala aire freskoa dagoen leku batera eraman.

Berehalako laguntza medikoa eskatu.

Langileari emana

Izen-deiturak:

Sinadura:

Data: